

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko martxoaren 26ko martxoaren 31rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

28/03/2018 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko martxoaren 16koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, animalientzako elikagai konposatuen industria-sektoreko hitzarmen kolektiboko 2017ko soldaten eguneraketari buruzko akordioaren akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **4363 xedapena – 3 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/03/26

- OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Egun baliogabeak.** - Hutsen zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2017ko abenduaren 1ekoa, Funtzio Publikoaren Estatuko idazkariarena, zeinaren bidez, epeak zenbatzeko, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruko egun baliogabeen 2018. urteko egutegia ezartzen den. **4189 xedapena – 1 or.**

27/03/2018

- LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. - Elikadura-osagarriak.** - 130/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Elikagai Osagarriei buruzko irailaren 26ko 1487/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. **4245 xedapena – 8 or.**

28/03/2018

- OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa, Diruzaintza eta Finantza Politikako Idazkaritza Nagusiarena eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiarena, zeinaren bidez arautzen baita Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren aldeko kotizazioak ordaintzeko prozedura. **4318 xedapena – 2 or..**

2018/03/29

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.** - Huts-zuzenketa, arau honena: HFP/231/2018 Agindua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko aitortpenak egiteko ereduak onartzen baitira, aitortpenak aurkezteko lekua, modua eta epeak ezartzen baitira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren zirriborroa eskuratu, aldatu, berretsi eta aurkezteko prozedurak ezartzen baitira, zerga baten zein bestearen aitortpenak telematikoki edo telefono bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen baitira, eta azaroaren 22ko HAP/2194/2013 Agindua -tributuen arloko zenbait autolikidazio, informazio-aitortpen, zentsu-aitortpen, komunikazio eta itzulketa-eskaera aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak arautzen dituen- aldatzen baita. **4389 xedapena - 4 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - Enplegu-politika.** Ebazpena, 2018ko martxoaren 28koa, Enpleguko estatu-idazkariarena; horren bidez, 2018ko Enplegu Politikaren Urteko Plana onartzen duen Ministro Kontseiluaren 2018ko martxoaren 27ko akordioa argitaratzeko agintzen da, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Enplegu Legearen testu bateginaren 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. **4390 xedapena - 90 or.**

2018/03/30

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOA. - Landare osasuna.** - APM/330/2018 Agindua, martxoaren 26koa, urtarrilaren 21eko 58/2005 Errege Dekretuaren IV. eranskina aldatzen duena (Errege Dekretu horren bidez hainbat babes neurri hartzen dira, landareentzako edo landare-gaienezako organo kaltegarriak lurralde nazionalean eta Europar Batasunean ez sartu eta ez zabaltzeko eta, orobat, hirugarren herrialdetara ez esportatu eta ez eramateko). **4413 xedapena - 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/03/28

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** - 1/2018 INSTRUKZIOA, martxoaren 7koa, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordearena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 19., 27. eta 29. artikulua aplikatzeari buruzkoa, eta, zehazki, hala badagokio, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bateko onuradunen eta arrunten eskubide ekonomikoen enbargoak idatziz jasotzeko uneari buruzkoa, eta enbargo hori egikaritzeko uneari buruzkoa. **1676 xapadena - 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/03/27

- 2/2018 FORU ARAUA, martxoaren 21ekoa. Honen bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena. **42 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

.....

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO